


MARENEN ABENTURA EBAKUNTZA-GELAN



Jatorrizko ideia:



Osakidetza

BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI^a
OSI BARRUALDE-GALDAKAO

GALDAKAO-USANSOLOKO
UNIBERTSITATE OSPITALEA





GALDAKAO-USANSOLOKO
UNIBERTSITATE OSPITALEA

EGILEA: Fabian Medeiros, María Luisa Oreja Vázquez, Beatriz Izar Álvarez Gómez;
Ainhoa Pérez Olaeta
EDIZIOA eta ILUSTRAZIOA: Ainhoa Pérez Olaeta
JATORRIZKO IDEIA: Barrualde-Galdakaoko ESko Humanizazio Batzordea
ESKERRAK: Maite Ramirez Trapero (Psikiatra), Juanjo Perez Moreno (Osasun
Mentaleko erizain espezialista)

Maren gurasoekin eta bere koa **LA GUN** lagun onenarekin bizi da, edonora badoa ere, beti berarekin doana.

Mareni izugarri gustatzen zaio parkera joatea eta eskolan gauzak ikastea, baina gaur gaixotu egin da eta, eskolara joan ordez, Izarraitz pediatriarenera doa, senda dezan.



Kaixo, koa **LA GUN** naiz,
Marenen lagun leiala

Izarraitzek Maren belarriak, bularra eta tripa ondo begiratuko dizkio.
Oraingoan ezin duela berak sendatu esan dio eta ospitalera joan behar duela
ebakuntza egitera.
Maren ez da inoiz ospitalera joan, eta harrituta dago. A, zer-nolako abentura!



Ospitalea eraikin ikaragarria da eta, bertan,
jende askok lan egiten du, gaixotzen diren
pertsonek sendatzen laguntzeko.



Zeinen eraikin
zoragarria!
Jendea helikopteroan ere
ekar dezakete!

Ospitalera doazen lehenengo aldian, Iratxe eta Rubeenen kontsultara doaz.

Ruben zirujaua da, oso atsegina, eta barrutik ondo ez dauden pertsonak sendatzen ditu.

Iratxe anestesista da, ametsen doktorea, eta maskara magiko bat dauka, pertsonak lokarrarazteko, minik sentitu ez dezaten, Rubenek sendatzen dituen bitartean.



Ametsen
doktoreak
maskara
magikoa
ebakuntza-
gelan
dagoela esan
dio.

Bertan, argi
eta gailu
asko daude,
eta espazio-
ontzia dirudi.

Leku
sinestezin
horretan
sendatuko
dute Maren.



Hara, zelako
pasada!

Mareni, kontatu diote ospitale batzuetan, korridoreetatik espazio-ontzira
eramaten zaituen auto galaktikoa dagoela.
Irrikitan dago autoan ibiltzeko!





Ebakuntza egin aurretik, Rubenek eta Iratxek Marenek zein odol-mota daukan begiratu behar dute, eta ospitalean dagoela aprobetxatuz, esan diote koloretako hodi batzuetan sartzeko odol apur bat aterako diotela.





Bisitaren ondoren,
Maren lasai doa
etxera.

Maleta prestatu behar
du, ebakuntzaren
egunerako eraman
behar dituen
gauzekin.



Ebakuntza egin aurreko egunean, Maren urduri samar dago. Normala da horrela sentitzea, abentura hastear dago eta.

“Mimoen botika” daukate etxean, eta, hala,... gogokoen duen jakia prestatu diote afaltzeko. Bainu goxoa hartu du, edari beroa lasaitzeko eta, nola ez, ipuin gustokoena irakurri diote.

Marenek patxada ederrean lo hartu du bere koa **LA GUN**arekin.



Ebakuntzaren eguna iritsi da azkenean. Maren gose da, baina ezin du gosald, Rubenek operatzeko tripa hutsik eduki behar duela esan diolako. Koala GUNak ere ez du gosalduko eta pozik dago, beraz... ez du inporta!



Oso garbi egon behar duela ere esan diote.
Marenek dutxa hartu du eta gorputz osoa belakiarekin igurtzi du.

Ospitalera heldu da eta eserlekudun gela handi batean itxaroteko esan diote.
Egia izango al da ebakuntza-gela espazio-ontzia dela?
Txemak, administrariak, ospitalean egoteko behar duen eskumuturrekoa prestatu
du, eta bere izena eta urtebetetze-eguna ditu idatzita.



Itxarongelan egotea aspergarria da,
baina aitarekin dabil ikusi-makusika.

Orduan, Nerea dator, zeladorea. Grisez jantzitako hango pertsona guztiek bezala, ospitaleko bideak ondo ezagutzen ditu eta badaki non dagoen ebakuntza-gela espaziala; beraz, berarekin doa.


Lehenik eta behin, oheak eta gortinak dauzkan beste gela batera doa, eta han, Lorea erizainak pijama jartzen laguntzen dio ebakuntza-gela espazialera joateko.

Jarabe pixka bat eman dio eta ospitalean lan egiten duen koala **LA GUN** en lagun bat aurkeztu dio, Ausarta hartzatxoa.





Begira eskumuturrekoa!
Nire izena eta nire
urtebetetze-eguna
dauzka idatzita!



Tripa gainean jartzen
banauzu, eta arnasa indarrez
hartzen baduzu eta gero
poliki bota... ikusiko duzu
nola igotzen eta jaisten
naizen.

Askotan egiten baduzu, nik
primeran pasatuko dut eta zu
lasaitu egingo zara.
FUNTZIONATZEN DU!



Nerea, bide guztiak ezagutzen dituena, urdinez jantzi da, Maren ebakuntza-gelara (jendea sendatzen duten lekura) eramateko, espazio-ontziko tripulatzailleak ezagutzera.

Auto galaktikoarekin etorri da!


Marenek, ebakuntza-gelaraino gidatu behar du eta kanpoaldean aparkatu.
Zeinen dibertigarria! Adi! ez da ahaztu behar gidabaimena!



Azkenean, ebakuntza-gela espazialera iritsi naiz!

Maren tripulatzailleek jantzi urdinak, txanoak eta maskarak dauzkatela jantzita kontarutu da. Oso lasai dago; izan ere, aurpegia erdi estalita badaukate ere, begietan iribarrea ikusten zaie, eta oso atseginak dira.

Ebakuntza-gelan zain daude Ruben, Iratxe eta beste tripulatzaille batzuk: medikuak, erizainak, erizaintzako laguntzaileak, zeladoreak, eta oso ondo dakite pertsonak zelan sendatu.




Araitz erizainak minik ematen ez duten gauzak egiten dizkio, esaterako, bularrean
eranskailuak ipini, eta atzamarrean pintza supergalaktikoa.
Maren beldur da eta estu besarkatzen du Ausarta hartzatxoa.



Iratxek, ametsen medikuak, kontsultan erakutsi zion maskara magikoa ipini dio,
agindu zion moduan, eta ez dio batere minik egingo.
Marenek amets egiteko gauza polit bat ekarri du gogora eta, konturatu orduko, lo
gelditu da.





Maren lo sakonean murgildu da eta esnatu denerako, barrutik sendatuta dago.
Iratxek arrazoa zeukan, ez dio minik eman! Ausarta hartzatxoa berarekin ez balego,
dena amets bat izan dela pentsatuko luke.
Gurasoak eta koa **LA GUN** ondoan dauzka. Oso pozik daude, dena ondo atera delako.
Abentura sinestezina izan da!



Lagundu Mareni
objektu hauek
aurkitzen:



7



"MARENI LAGUNTZEKO BOTIKINA":



-Abentura handiaren bezperan etxean egiteko mimoak:

Masaje erlaxagarriak egitea edo bainu bero bat prestzea (holakoak erabil daitezke: aromaterapia, izpilikua oso lasaigarria da), bere jaki gogokoena prestatu, familiar kontatzeko eta dantzatzeko musika ipini, infusio erlaxagarria edo basokada bat esne eman oheratu aurretik.

Besarkada, musu eta laztan asko emateak haurraren organismoak oxitozina sortzea eragiten du eta ongizate (eta erlaxazio) sentazio naturala ematen dio.

-Entretenigarriak:

Jolas errazak egin, margotu edo marraztu, musika entzun, serieak edo filmak ikusi, eskulanak egin, hitz egin...

-Arnasketak:

Egin arnasketa kontrolatua (motela eta sakona), hiru fase dituen: arnasa hartzea, etenaldia eta botatzea.

Arnasa hartzean zenbatu 3ra arte, etenaldia egin (3ra arte zenbatu) eta arnasbotatze luzea egin, 6ra arte zenbatuz.

Gazteagoak direnean, 6-7 urte baino gutxiago, modu sinpleagoan egin daiteke, hartzaren adibidean bezala: peluxea tripa gainean jarri eta igo eta jaitsi dadila poliki.



-Muskuluen erlaxazioa:

Lagundu haurrari gorputzaren atalak uzkuritu eta aska ditzan.

ADIBIDEA: Aurpegi osoa uzkuritu, kopeta zimurtu, begiak eta ahoa gogor itxi, 5 segundo mantendu eta askatu; gauza bera egin gorputzeko beste atal batzuekin: sorbaldak, besoak eta ukabilak 5 segundo uzkuritu eta askatu; tripa 5 segundo uzkuritu eta askatu; ipurmasailak 5 segundo uzkuritu eta askatu; hankak 5 segundo uzkuritu eta askatu.

AMAIERA

BETETZEKO



h_____



i_____



h_____




s_____



e_____



a_____



g_____ba_____



k_____



l_____

GALDAKAO-USANSOLOKO
UNIBERTSITATE OSPITALEA



k_____LA G_____



m_____



A_____har_____



p_____



b_____ - s_____l_____

NOR DA NOR?



Maren

amatu

erizaina



zeladorea

medikua

administraria



GALDAKAO-USANSOLOKO
UNIBERTSITATE OSPITALEA





Osakidetza

BARRUALDE-GALDAKOKO ESIa
OSI BARRUALDE-GALDAKAO

Marenen abentura ebakuntza-gelan © 2024

by Fabian Medeiros Fidalgo; María Luisa Oreja Vázquez; Beatriz Izar Álvarez Gómez; Ainhoa Pérez Olaeta is licensed under Creative Commons Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0 International.

To view a copy of this license, visit <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>

ISBN 978-84-09-63455-2

Diseinua: *Canva*